



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2019/14

Diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, ekintzaile gazteek enpresak eratu ditzaten. 2019. urtea

Deialdi honen xedea da diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Komunitate Garapeneko Zinegotzi Ordezkarria
3. Alor kudeatzailea:	Komunitate Garapeneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da ekintzaile gazteek jarduera ekonomiko berriak Iruñeko udal-mugartean eratu eta abiatzeko izaten dituzten gastuak diruz laguntzea.

Jarduera ekonomiko berrizat joko dira 2018ko irailaren 15etik 2019ko irailaren 14ra bitarte (bi data horiek barne) JEZearen lehen aldiz alta hartu dutenak.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira aurretik jadanik bazegoen enpresa baten izenaren edo izaera juridikoaren aldaketaren ondorioz sorturiko enpresak edo horren kapital-gehikuntzaren edo egitura-aldaketaren ondorioz sortutakoak. Halaber, diru-laguntzatik kanpo geratzeko beste zio bat izanen da deialdi hau NAO, argitaratu baino bi urte lehenagoko epean jarduera berean edo antzekoan norberaren konturako jardun izana. Eskatzailea pertsona juridikoa edo sozietatea bada, baldintza hori sozietateko parte hartzaile edo bazkide guztiek bete behar dute.

Deialdi honen ondorioetarako, ez dira jarduera ekonomiko berrizat joko jardueraren zabalkuntzak, hau da, hasierako jarduerari eutsita JEZaren epigrafe berri batean altan emandakoak.

2. Deialdiaren helburua:

Ekintzaile gazteei laguntzea Iruñean jarduera ekonomiko berriak sor ditzaten.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Diru-laguntza hauen onuradunak izanen dira 2018ko irailaren 15etik 2019ko irailaren 14ra bitarte (bi egun horiek barne) jarduera ekonomiko berriak eratzen dituztenak, betiere deialdi honen D.1) puntuan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.



Ondorio horietarako, JEZean alta noiz eman eta egun hori hartuko da jardueraren hasiera-datatzat.

Diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira jokoarekin, tabernekin edo antzekoekin loturiko jarduerak (JEZaren 673 eta 969 epigrafeak).

Ez dira diruz lagunduko deialdi honen aurreko edizioen batean laguntza jaso duten jarduera ekonomikoak. Diru-laguntza hau behin bakarrik jasotzen ahalko da, eta, behin jasoz gero, ezin izanen da deialdira berriz aurkeztu.

4. Baloratzeko baldintzak, bideak eta lehentasunak:

BAI EZ

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 50.000 €

Atal honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, 2019. urterako egindako aurrekontu-izendapena nahikorik ez bada, eta Komunitate Garapeneko Alorrean urte honetarako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, handiago eginez, horrenbestez, erabilgarri dagoen kreditua.

Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/33702/479000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Jarduera ekonomikoak eratu eta abiatzeko gastuek guztira zenbat jo eta horren % 70eko gehieneko diru-laguntza ezarri da, 1.500 euroko mugarekin nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko, sozietate zibil eta sozietate irregularrentzat, eta 2.000 euroko mugarekin, nortasun juridikoa duten elkarteentzat.

4. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	50.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezain debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Jarduera ekonomiko berriak B letraren 3. zerbakian zehaztutakoaren arabera eratu dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eska ditzakete diru-laguntzak, baldin eta baldintza orokorrak bete eta Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikulua ezarritako debeku-zioren batek ere ukitzen ez baditu, betiere honako hauekin bat:



- I. 18 eta 35 urte bitarteko pertsona fisikoak izaki (bi adin horiek barne) unitate ekonomiko bat eratzea.
- II. Sozietate zibil, irregular, kolektibo edo komanditario bakunak izaki, sozietateko bazkideen bi herenek (edo % 66k) 18 urte beteak eduki eta 35 urteko adina ez gainditzea.
- III. Merkataritzako kapital-sozietateak, lan-sozietateak eta kooperatibak izaki, kapital sozialaren bi heren gutxienez 18 urtetik 35era bitarteko bazkideek jartzea.
- (*). Kasu guztietan, adinaren betekizuna jarduera abiatzen den datan bete behar da. Deialdi honen ondorioetarako, JEZeant alta noiz eman eta egun hori hartuko da jardueraren hasiera-datatzat.
- IV. Diruz lagundutako jarduera ekonomikoaren helbide fiskala eta negozioa Iruñeko udal-mugaratean egotea. Entitate eskatzaileak egiaztatu beharko du egunean dituela hala zerga- eta tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak.
- V. Entitate eskatzaileak Iruñeko Udalaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartu izana B.3 puntuak ezartzen duen epean, hau da, 2018ko irailaren 15etik 2019ko irailaren 14ra bitarte.
- VI. Dagokien enpresa-plana edukitzea.
- Diru-laguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:
- BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

Diru-laguntzaren oinarri den jarduerari eustea, gutxienez 18 hilabetez, JEZeant alta hartu eta ordutik aitzina.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela diru-laguntza jaso duten programak, jarduerak edo jarduketak: BAI EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektrikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

Oroitzapen-plakak.

Aipamenak hedabideetan.

Beste batzuk: Udalak beretzat gordetzen du diru-laguntzak emateko ekitaldi publikoak egiteko aukera. Ekitaldi horretara onuradunak bertaratuko dira, edo, bestela, haiek eskuordetutako pertsonak.



- Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: BAI EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, beste administrazio, entitate publiko edo pribatuek –nazionalak zein nazioartekoak– emaniko diru-laguntzak batera eskuratzen badira, aldatzen ahalko da diru-laguntza emateko ebazpena.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkezten ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, eta bukatuko 2019ko urriaren 15ean (egun hori barne).

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak interesdunek sinaturik –edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek– aurkeztu behar dira, deialdi honen I. Eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizuneko aitortzen bat aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.



4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

a.1) Pertsona fisikoak diren eskatzaileak:

- NANA edo legearekin bat hori ordezkatzeko duen agiria.

a.2) Sozietate irregularrak edo sozietate zibilak diren eskatzaileak:

- Sozietatearen eraketa-egiaztatzea, betiere, dagokion erregistroan izena emanda.
- Eratutako jardueraren legezko ordezkariaren NANA.
- Identifikazio fiskaleko ziurtagiria.

a.3) Aipatuz besteko pertsona juridikoak diren eskatzaileak:

- Enpresaren eraketari buruzko eskritura, Merkataritzako Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda.

- Eratutako jardueraren legezko ordezkariaren NANA.
- Lan egiten duten bazkide guztien NANA.
- Identifikazio fiskaleko ziurtagiria.

b) Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizuneko aitortpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori jasoko du dagokion eginbidean.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteraren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarreak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitorpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ

f) Eskatzen den diru-laguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duen memoria.

Enpresa-plangintza aurkeztu beharko dute, non, orientazio gisa, honako alderdi hauek garatu beharko baitira:



f.1) Proiektuaren eta ekintzailearen deskribapena.

f.2) Proiektuaren oraingo fasea.

f.3) Aurreikuspenak, lehen urte osoko diru-sarrerei, gastuei eta inbertsioei dagokienez.

f.4) Proiektuaren finantza-plangintza eta sortutako lanpostu-kopurua.

Orientazio gisa, plana osatzeko, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko Industriako eta Enpresa Txiki eta Ertainetako Zuzendaritza Nagusiaren webgunean (<https://planempresa.ipyme.org/>) eskuragarri dagoen tresna erabil daiteke.

g) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea (VI. ERANSKINA)

h) Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela justifikatzeko agiria, deialdi honen (Ñ) letran xedatutakoaren arabera.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautotuak diren kopiak.

H. PROZEDURA INSTRUITU ETA EBAZTEA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, eta horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) puntuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebatzeko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, eskaera ezetsizat joko da, betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 17.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.



I. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ezberrik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu: Iruñeko udal-mugartean jarduera ekonomikoa sortu eta abiatzeak eragindako gastuak oro, hala nola honako hauek:

- Jarduera abiatzeko beharrezko diren gastuak, hala nola notariotzakoak, erregistrokoak eta jarduera ireki edo hastearrekin zuzenean lotutako beste gastu batzuk (bisita-txartelak, logotipoen diseinua, markaren irudia, webgunea, marka erregistratzea, patentea, utilitate-modeloa, domeinu-izena eta abar).

- Alokairu-gastuak, betiere muga izaki jarduera abiatu eta ondoko hiru hilabete jarraien alokairua, gehienez ere. Ezein kasutan, ez da laguntzarik emanen alokairuak ordaintzeko, baldin eta errentariaren eta errentatzailearen artean bada odolkitetasun edo ahaidetasuneko hirugarren gradura bitarteko harremanik. Ez dira, ezta ere, diruz lagunduko fidantzan ordaindutako kopuruak.

- Negozioa eskualdatzea. Eskualdatze-kontzeptuagatik ordaindutako zenbatekoak izan daitezke, bakarrik, diru-laguntzen xedea, izakinak eta salgaiak laguntzatik bazter utzita.

- Aldizkako gastuak: Gizarte Segurantzaren kuotak, nominak, elektrizitate-kontsumoa, telefono-kontsumoa eta antzekoak. Aintzat hartuko dira, bakarrik, jardueraren hasiera-dataren hurrengo hiru hilabetei dagozkienak. Ondorio horietarako, gastuaren datatzat joko dira gastuak justifikatzeko fakturen jaulkipen-datak.

Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratzeko-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) puntuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diru-laguntzen xedea izanen:

1. 1 Tokiko tributuak.

Tokikoak ez diren tributuak diru-laguntzaren xede izanen dira diru-laguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen baditu. Alabaina, ez dute izaera hori honako hauek:

a) Berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergak. Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, benetako kostuak eraginda onuradunak ordaindu dituen gastuen kopuruak izanen dira bakarrik diru-laguntzen xede, betiere kengarriak ez badira; izan ere, kengarriak izan badaitezke berreskuratzen ahalko ditu zergaren zenbatekoak. Onuradunak modu frogagarrian egiaztatu beharko du inguruabar hori.



b) Errentaren gaineko zerga pertsonalak.

2. Honako gastu hauek ez dira izanen diru-laguntzaren xede:

a) Argi eta garbi zehazten ez diren gastuak.

b) Deialdi honen bitartez diruz laguntzen diren jarduera ekonomikoetarako guztiz beharrezkoak ez diren gastuak.

c) Enpresako bazkideen, jabeen edo senitartekoen erabilera pribatuari lotutako gastuak, hala nola gasolinaren, autobide-sarien edo antzekoen fakturek eragindakoak.

d) Prestakuntza-gastuak.

3. Ondasunen erosketak, helburua bada horiek saltzea.

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea:

Eskatzaileak JEZean alta noiz hartu eta aurreko sei hilabeteetan eta ondorengo hiruretan.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: gutxienez, jarduera eratu eta abiatzeko egindako gastuen % 30.

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.



N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak bere kabuz kitatzen ahal izanen ditu, alde aurretik, diru-laguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, diru-laguntza horiekin, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruak konpentsatuta.

Onuradunek diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko dute, osorik edo hein batean, justifikazio egokirik aurkeztu ezean, edo azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean edo Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean aurreikusitako itzulketa-zioren bat gertatzen bada.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduarekin bat).

Justifikazio-kontua agiri hauek osatuko dute:

a) Ebaluazio-memoria, xehetasunez aitortuko duena diru-laguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda (IV. ERANSKINA. Justifikazioa).

c) Indarra duten legeekin bat gastua egiaztatzeko baliorik duten egiaztagiria, fakturak edo horien ordezkioak, ordainagiriak eta baita nominak, tributuak zein Gizarte Segurantzako kuotak eta, oro har, gastuak frogatzeko gainerako egiaztagiri baliokideak ere, trafiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak, betiere modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Inbertsioa justifikatzeko fakturek berariaz aipatuko dute diru-laguntzaren xede den lokala edo



jarduera, edo haietara zuzenduta egon beharko dute.

Faktura jaulkitzen duen entitatea BEZetik salbuetsirik dagoenean, organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko salbuespena egiaztatuta eta horren frogagarri.

Langileria gastuak soldata-kostuen gisara egiaztatzeko, beharrezkoa da honako agiri hauen kopiak aurkeztea: lan-kontratuak, langileei dagozkien nominak, jasotzaileak sinaturik eta ordainduta daudela egiaztatuta, edo, bestela, bankuaren abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagozkien ziurtagiriak.

d) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatuta behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

Galdatzen diren agiri horiek guztiak jatorrizkoak izan beharko dute, edo horien kopia konpultsatuta, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua:

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Epeak eskaerak aurkezteko mugaegunera bitarte hartuko du, salbu eta diru-laguntzaren zenbateko gehienera iritsi ez eta gastu gehiago aurkeztu behar duten eskaeren kasuan. Horretarako, aukera edukiko dute JEZeant alta hartutako dataren ondorengo hiru hilabeteetan egindako gastuak justifikatzeko hamar eguneko epean, betiere J.2) klausularekin bat.

0. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

Egokia izanen da diru-laguntza itzularaztea ez bada betetzen proiektuari 18 hilabetez



eusteko betebeharra, JEZeant alta hartu eta ordutik kontatuta, betiere itxiera ezinbesteko arrazoiek eragin ez badute. Itzuli beharreko kopurua proportzionala izanen da, JEZeant alta hartzetik aitzina 18 hilabeteak betetzeko zenbat denbora falta den eta horren arabera.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeo errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeo errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIOA

V. ERANSKINA. IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA

VI. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA



**-I. ERANSKINA-
-DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEA-**

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		TELEFONOA
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	
[EZABATU EZ DAGOKIZUNA]					
BEREZ edo HONAKO HONEN IZENEAN*:					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA				NAN, IFZ, AIZ edo IFK	
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	TELEFONOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA (1)					

Jakinaren gainean nago NAOn argitaratu dela (Zk:; Data:) diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, xede honetarako:

ESKAERA: Kontuan har dadila eskabidea. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditut:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, ordezkapenen kasuan, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeakoak, deialdiaren G.4 puntuko a) letran zehaztutako moduarekin bat.
- Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. Eranskina eredu gisa hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bete egiten dituela Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eta deialdi honek exijitzen dituzten baldintzak, eta Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen.
- Ziurtagiria, pertsona edo entitate eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzeko, deialdiaren G.4) puntuan zehaztutako moduarekin bat.
- Aitorpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak (III. Eranskina).
- Memoria bat, diru-laguntza zertarako eskatu eta proiektu, ekintza, jarrera edo jarduera hori deskribatzen duena. Enpresa-plangintza, non, orientazio gisa, honako alderdi hauek garatu beharko baitira: proiektuaren eta ekintzailearen deskribapena, proiektuaren oraingo fasea, diru-sarrerren, gastuen eta inbertsioen aurreikuspena, proiektuaren finantzaketa-plana, errentagarritasun-atalasea eta sortutako lanpostuen kopurua.



- G.4) puntuko g) letran eta h) letran hurrenez hurren jasotako agiriak: transferentzia bidezko ordainketa egitekoa (udal-ereduarekin bat) eta diru-laguntza dagokion "justifikazio-kontua"ren bidez justifikatzekoa.

Iruñean, ____ (e)ko _____ aren ____ (e)an
(Sinadura)

(1) Helbide elektronikoa eransteak berekin dakar onartzea bide hori lehenetsiko dela deialdi honekin loturiko edozein komunikazio eta jakinarazpenetarako.

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz diru-laguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



**-II. ERANSKINA-
-ERANTZUKIZUNEN AITORPENA-**

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):

..... NAN: Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Bere kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):
.....

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Jakinaren gainean nago deialdia egin dela, diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko, **ekintzaile gazteek enpresak eratu ditzaten**,

AITORPENA:

- Bete egiten ditut onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta Deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak oro.
- Ez nau ukitzen Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikulua onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere.
- Egunean ditut zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dut eskatutako laguntzaren zenbatekoa erabiliko dudala diru-laguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko.
- Konpromisoa hartzen dut adierazpen honek zehazten dituen inguruabarrak ziurtatzeko, errekerimendua noiz egin eta hortik hamabost eguneko epean, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 15.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, ____ (e)ko _____ aren ____ (e)an
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz diru-laguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.



-III. ERANSKINA-

- JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN ERANTZUKIZUNEN AITORPENA-

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):

..... NAN: Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Bere kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):
.....

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Jakinaren gainean nago deialdia egin dela, diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko, **ekintzaile gazteek enpresak eratu ditzaten,**

AITORPENA, ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZARI BURUZ:

- Ez diet ezein diru-laguntzarik eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere–.
- Diru-laguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri:

Eskatutako diru-laguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

- Diru-laguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik:

Jasotako diru-laguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)



Datuak eguneratzeari dagokionez, konpromisoa hartzen dut aitortzen honi atxikirik doan diru-laguntzaren eskabidean gerta daitekeen edozein aldaketaren berri idatziz jakinarazteko diru-laguntza honen organo kudeatzaileari (Komunitate Garapeneko Alorreko Gazteria Unitatea), honen berri izan eta 15 eguneko gehieneko epean. Halaber, konpromisoa hartzen dut diru-laguntzaren bat zein entitate publikori eskatu eta horiei guztiei aurrekoaren berri emateko. Bai eta jarduera abiatu eta lehen 18 hilabete bitarteko epean gerta daitekeen beste edozein aldaketarena ere. Jakitun nago halakoetan gerta daitekeela diru-laguntza itzuli behar izatea jarduera bertan behera geratuz gero, betiere itxiera ezinbesteko arrazoiek eragin ez badute.

Iruñean, ____ (e)ko _____ aren ____ (e)an

(Sinadura)



**-IV. ERANSKINA-
-JUSTIFIKAZIOA-**

SORTUTAKO LANPOSTUEN
KOPURUA

EGINDAKO GASTUEN ETA JASOTAKO DIRU-SARREREN ZERRENDA (FAKTURAK KOADROAN EMANDAKO HURRENKERA ETA ZENBAKI BERAREKIN ERANTSI)

Zk. ⁽¹⁾	FAKTURAREN DATA	KONTZEPTUA ETA JAULKITZAILEA	ZENBATEKOA
1.			
1			
2			
3			
4			
2.			
5			
6			
7			
8			
3.			
9			
10			
4.			
11			
12			
13			
5.			
14			
15			
6.			
16			
17			
18			
ZENBATEKOA, GUZTIRA:			

(1) Fakturak gastuen kontzeptuka eta hurrenkera kronologikoan aurkeztuko dira.

Oharra: Behar izanez gero, lerro gehiago txerta daitezke ordainagiriaren zerrendan, "beste kontzeptu batzuk" gisara.



**-V. ERANSKINA-
-BAIMENA, IRUDIAK ERABILTZEKO ETA KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEKO-**

Izen-abizenak:

NAN: _____

- BAIMENA** ematen diot Iruñeko Udalari IRUDIAK EDO BIDEOAK erabiltzeko, halakoak non bakarrik edo taldean agertzen bainaiz, betiere gazte ekintzaileek enpresak eratu ditzaten diru-laguntzak emateko deialdiaren kariatara antolatutako ekitaldietan. Halaber, baimena ematen diot horiek argitaratzeko erakundearen webgunean (www.pamplona.es), bai eta komunikazio ofizialeko beste edozein bidetan ere (erakundeak kudeatutako beste zenbait webgune, sare sozialetako profil ofizialak, etab.).
- BAIMENA** ematen diot Iruñeko Udalari informazioa bidaltzeko enpleguarekin loturiko gaietarako buruz, posta elektronikoa zein arrunta edo telefonoa erabilita –datu horien berri I. Eranskinean eman dut, jakinarazpenetarako datuak atalean–.

Iruñean,ekoaren(e)an

Sin.: _____
(Interesduna)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz diru-laguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

SOLICITUD DE ABONO POR TRANSFERENCIA – TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA

Nota- Oharra: Si es la primera que vez que realiza esta solicitud, debe presentar fotocopia de NIF. Lehen aldía bada eskaera hau egiten duzula, IFZren fotokopia aurkeztu behar duzu.

SOLICITANTE – ESKATZAILEA

Apellidos y nombre (o razón social) – Abizenak eta izena (edo sozietate-izena):		DNI / NIF – NAN / IFZ
Dirección (Calle, plaza, avda... / Nº / Escalera / Piso / Puerta) – Helbidea (Kalea, plaza, etorb... / Zk. / Eskailera / Sol.. / Atea)		Teléfono – Telefonoa:
C.P – PK:	Localidad – Herria:	Provincia – Probintzia:

CUENTA BANCARIA – BANKU-KONTUA

Titular de la cuenta – Kontuaren titularrak:

(El nombre y dos apellidos o razón social del o de la titular deben coincidir con los de la persona o entidad solicitante – Titularren izen-abizenek edo sozietate-izenak eskatzailearen berberak izan behar dute)

Código IBAN kodea (24 dígitos – 24 digitu)

Código BIC kodea

(Opcional para entidades españolas. Puede contener 8 u 11 caracteres – Aukerakoa, Espainiako entitateen kasuan. 8 edo 11 digitu izan ditzake)

CERTIFICACIÓN BANCARIA – BANKU-ZIURTAPENA

Quando el o la titular de la cuenta sea una persona física, bastará con que aporte fotocopia de la libreta de ahorro, cheque o extracto remitido por el Banco, o de cualquier otro documento donde consten el nombre del o de la titular y los datos bancarios con 24 dígitos. Kontuaren titularrak pertsona fisiko izanez gero, nahikoa da aurkeztea aurrezki-libretaren fotokopia, txeki batena edo Bankuak igorritako laburpen batena, edo beste edozein agirirena – baldin eta titularren izena eta banku-datuak jasotzen baditu, 24 digituekin–.

APODERADOS/AS – AHALDUNAK: Apellidos y nombre – Abizenak eta izena:	Cargo o empleo – Kargua edo lanpostua:	Banco – Bankua:
Apellidos y nombre – Abizenak eta izena:	Cargo o empleo – Kargua edo lanpostua:	Banco – Bankua:

Las personas citadas como apoderados/as CERTIFICAN lo siguiente – Aipatu ahaldunek honako hau ZIURTATZEN DUTE:
Existe una cuenta abierta con los datos reseñados en el apartado de "Cuenta Bancaria" precedente. Y para que conste a efectos de domiciliación de los pagos que deba hacer el AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA a la persona solicitante, expiden esta certificación en el lugar y fecha que se indican a continuación.
LUGAR DE CERTIFICACIÓN – NON ZIURTATUA: _____
Badago banku-kontu bat irekita, "Banku-kontua" izeneko atalean jasotako datuekin bat datorrena. Eta hori jasota gera dadin, IRUÑEKO UDALAK eskatzaileari egin beharreko ordainketen helbideratze-ondorioetarako, ziurtapen hau ematen dute ondoan adierazten diren tokian eta datan.
FECHA DE LA CERTIFICACIÓN – NOIZ ZIURTATUA: _____

(Esta certificación debe llevar la firma de la(s) persona(s) apoderada(s) y el sello de la Entidad bancaria – Ziurtapen honek eraman behar ditu ahalduaren edo ahalduen sinadura eta Banku-entitatearen zigilua)

SOLICITUD DE PAGO EN CUENTA – KONTUAN ORDAINTZEKO ESKAERA

Nombre de la persona solicitante o de quien la representa – Eskatzailearen edo ordezkatzaren pertsonaren izena:	Lugar y fecha – Lekua eta data:
---	---------------------------------

EN NOMBRE PROPIO – BERE IZENEAN EN REPRESENTACIÓN DE – HONEN IZENEAN (1):

La persona solicitante solicita a la Tesorería del Ayuntamiento de Pamplona que los libramientos que se expidan a su favor sean abonados en la cuenta reseñada en el apartado de "Cuenta Bancaria", y queda enterado/a de que cualquier cambio de cuenta bancaria para pagos deberá realizarla presentando de nuevo una SOLICITUD DE ABONO POR TRANSFERENCIA. Eskatzaileak Iruñeko Udalen Diruzaintzari eskatzen dio bere aldeko igorpenak oro "Banku-kontua" izeneko atalean adierazitako kontuan ordain diezazkiola, eta jakitun gelditzen da ordainketetarako banku-kontuari dagokion ezdozein aldaketa egiteko, berriro ere TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDE bat aurkeztu beharko duela.

(firma de la persona solicitante – eskatzailearen sinadura)

(1) Si actúa en representación de otra persona o entidad, reseñe los datos del poder en el apartado siguiente – Beste persona edo entitatearen izenean ari bazara, ahalordeari buruzko datuak eman atal honetan:

PODER – AHALORDEA

Nombre del Notario/a (ante quien se ha otorgado la escritura) – Notarioaren izena (eskritura noren aurrean egin eta horrena):	Localidad de residencia – Bizitokia (herria):
Nº de Protocolo – Protokolo-zk.:	Fecha de expedición de la escritura – Eskrituraren data:

Este impreso debe remitirse a: AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA, Área de Economía Local Sostenible, Departamento de Recaudación y Tesorería (C/Mercado, 7-9 2ª planta 31001 (PAMPLONA))

Inprimaki hau hona igorri behar da: IRUÑEKO UDALA, Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorraren Diru-bilketa eta Diruzaintza Departamentua (Merkatuko k. 7-9, 2. solairua. 31001 IRUÑA)

PROTECCIÓN DE DATOS: En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración con la finalidad de gestión de pagos, y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Área de Hacienda local del Ayuntamiento de Pamplona. Podrá ejercer su derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General, a los Registros Auxiliares o a la Sede Electrónica en www.pamplona.es.

DATUEN BABESA: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bezelak, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honetik berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, ordainketak kudeatzeko helburuz, eta Iruñeko Udaleko Toki Ogasuneko datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko direla. Baduzu aukera datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubideak gauzatzeko, Erregistro Orokorreari joaz, edo erregistro osagarrietara zein egoalza elektronikora, www.pamplona.es webgunean.